

IZAKI BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK

Ingurumena izaki bizidunek eta bizigabeek osatzen dute.

Bizidunak jaio, hazi, elikatu, ugaltu eta hil egiten dira, zikloa behin eta berriz errepikatuz.

Hainbat erreinutan sailkatzen dira: landareak, animaliak, onddoak, bakterioak (moneroak) eta protistoak.

Bizigabeak ordea ez dira jaiotzen, ez hazten, ez elikatzen, ez ugaltzen, ezta hiltzen ere.

Bi motatako bizigabeak bereiztuko ditugu:

Naturalak: airea, ura, itsasoa, lurra...

Gizakiak sortutakoak: aulkiak, mahaia, kotxea, etxea,

Bizidunek eta bizigabeek elkarren beharra dute.